

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Antonio Mujika Casares

*Donostia,
Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea



Biografia



Herrerako Perueneberri etxean jaioa, San Luis plazan. Zortzi senidetan seigarrena. Aita Urnietakoa zuten, Luzuriaga enpresan ontzi mekanikoa, eta ama altzatarra. Jose Antoniok etxe azpian jaso zituen lehen eskolak, maistra batekin, eta gero La Salleko fraideekin. Donostian egin zuen batxilergoa, jesuitekin, eta 15 urterekin Antiguako seminaria joan zen. Erroman Teologia ikasi ondoren, hantxe apaiztu zen. Gerora abituak utzi zituen, eta ezkontuta dago. Idazlea eta itzultzailea da, eta irakaskuntzan urte mordoxka egin ditu. Euskara irakasteko hainbat metodo prestatu ditu, elkarlanean. Ategorrietako Irakasle Eskolan ibilia, Barandiaran Lizeoko zuzendari ere izan zen.

Zintak

DON-053

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-05
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

DON-195

- **Proiektua:** Lasarte-Oriako euskararen historia soziala
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azurza, Maria Eugenia
- **Data:**
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** Audio Analog

Pasarteak

1. Altza herri izatetik auzo izatera pasa zenekoa

- **Erref:** DON-053/002
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:01:07. **Bukatu:** 00:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Herreran jaio zen, anai-arreba guztiak etxe berean jaio ziren, baina batzuk Altzan eta beste batzuk Donostian. Izan ere, 1940. urtean Altza herri izatetik Donostiako auzo izatera pasa zen. Altza oso handia zen, zein auzo sartzen ziren lehengo herrian azaltzen du. N-1, topoa, tranbia... zuten eta ondo komunikatutako auzoa zenez, kanpoko jende asko etorri zen auzora. Perueneberri izena zuen beraien etxeak, Herrerako plazan zegoen.

2. Perueneberri etxea eta Herrerako auzotarrak

- **Erref:** DON-053/003
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:03:53. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Beraien jaiotetxea, Perueneberri, Herrera erdialdean zegoen. Etxea nolakoa zen azaltzen du. Komun luze-luzea izan arren ez zuten dutxarik. Sukalde handi-handia zuen eta bertan egiten zuten bizimodua. Zortzi bizilagun ziren eta denak ziren etxeko-etxekoak. Gainerako auzotarrekin ere harreman estua zuten. Herrerari "el barrio de la capilla" deitzen zioten. Kalean dena egiten zuten erdaraz, nahiz eta etxean euskaraz egin.

3. Herrerako giro erdaldunean bazegoen mundu euskalduna

- **Erref:** DON-053/005
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:06:34. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Kalean dena egiten zuten erdaraz, nahiz eta etxean euskaraz egin. Berak dotrina euskaraz egin zuen eta auzoan bazen taldetxo bat euskaraz egin zuena. 1970. urtean ikastolen mugimendua hasi zenean, lehen irakasleak auzokoak bertakoak izan ziren. Giro eta demografia erdaldunaren barruan mundu euskalduna ere bazegoela dio.

4. Gurasoei berorika

- **Erref:** DON-053/006
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoei eta edadekoei berorika egiten zieten. Kaletarrek ez zuten hika ikasi, baserritarrek bai. Bere arreba nagusienak gurasoei beti egin zien berorika.

5. Familia euskaltzalea

- **Erref:** DON-053/008
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:12:32. **Bukatu:** 00:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Bere gurasoak oso abertzaleak ziren eta beti izan dira euskaltzaleak. Jose Antonio seminaria joaterakoan asko zaletu zen Gipuzkoako beste hainbat lagunekin batera. Gero, erromara joan eta bertan hasi zen alfabetatzen. Ordenatzerakoan, herrira bueltatu eta irakasle lanetan hasi zen. Konturatu gabe euskararen munduan sartu zela dio.

6. Aita abertzalea izateagatik zigortua

- **Erref:** DON-053/010
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Lehen 50 bat urte lanean zaramatzan jendeari domina bat ematen zioten eta baita dirua ere. Bere aitaren enpresan bere aitari ematea proposatu arren, Madriletik ukatu egin zioten abertzalea izateagatik. Kartzelan ere egon zen eta behin propaganda kontuengatik atxilotu eta Melitón Manzanasen eskuetatik pasatu zen. Hala ere, aita ez zuen bizitakoari buruz askorik kontatzen.

7. Umetan bizitza librea zuten

- **Erref:** DON-053/011
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Umetan oso bizitza librea egiten zutela gogoratzen du, ez gaur egun bezala. Eskolatik aparte, beti kalean egoten ziren. Bazkalondoan ezkutuan ateratzen ziren etxetik. Kalean biltzen ziren mutikoak, neskak aparte batzen baitziren, denak ziren talde berekoak, inongo bazterketarik gabe. Giro hartan dena egiten zuten erdaraz. Pixka bat koskortzerakoan inguruko mendietara ere joaten ziren, baina beti etxe inguruan.

8. Etxe azpikoa maistraren eskolara

- **Erref:** DON-053/013
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:18:01. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Bera umea zela herri eskola, La Salletarrak (fraideak), moja mexikarrak, Mirakruzeko 'La Asunción', eta abar zeuden. Beste maistra batzuk aparteko eskola bat zuten eta Jose Antonio horrelako eskola batera joan zen, beraien etxe azpian zegoen. Edade guztikoak batzen ziren batera eta oso ondo prestatu zituen Dolores Kareaga maistrak.

9. Gerraostean dantza-taldea sortu zuen parrokoa

- **Erref:** DON-053/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Etxetik kanpo dena zen erdaraz. Bi parroko zeuden: bata Francoren aldekoa eta bestea asko inplikatzeko zena. Don Marcos Olaberrieta oriotarra zen apaiz hori eta berak sortu zuen Herrerako dantza-taldea, gerraostean Euskal Herrian sortutako lehendabizikoa.

10. Don Roman Irigoien mediku euskalduna

- **Erref:** DON-053/015
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:22:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek

Laburpena:

Altzako medikua, don Roman Irigoien zen, Joan Mari Irigoien idazlearen aita. Euskalduna zen eta beraientzat hori gauza handia zen, prestigio gehiago ematen zion horrek. Motoa gidatzeko baimena ateratzeko bere baimena behar izan zuen.

11. Edadekoekin euskaraz, lagunekin erdaraz

- **Erref:** DON-053/016
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:22:22. **Bukatu:** 00:23:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Herrerako edadeko jendearekin beti egiten zuten euskaraz, baina beraien artean eta eskolan ez. Maistrak dena egiten zien erdaraz. Etxean asko abesten zuten, aita bertsozalea zen.

12. Herrera eta inguruko auzoak

- **Erref:** DON-053/019
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:24:47. **Bukatu:** 00:27:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Herrera errepide izkinatako eraikinetako etxeak ziren. Auzoan zeuden zerbitzuak aipatzen ditu. Inguruko auzoak. Inguru hori asko aldatu da eta aldaketa horien berri ematen digu pasarte honetan Jose Antoniok.

13. Gazteek Erreenteriara joateko joera

- **Erref:** DON-053/020
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:27:03. **Bukatu:** 00:28:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gazteek Erreenteriara joateko joera zuten. Alamedan musika egoten zen igandetan. Ondorioz, Herrera eta Erreenteriako bikote asko sortu ziren garai hartan. Mendizaletasuna ere bazegoen gazteen artean.

14. Seminarioan giro ona eta zabala

- **Erref:** DON-053/022
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

16 urte egiteko zituela joan zen seminariora, bertan beste mundu bat ezagutu zuen: Gipuzkoa guztiko jendea zegoen eta euskara gehiago zegoen mundu hartan. Giro ona eta zabala zegoen diziplina izan arren. Ikasketak erdaraz ziren, baina euskararako tarte ere bazuten han.

15. Euskarazko lehen irakurgaiak eta gramatika

- **Erref:** DON-053/023
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:34:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminaria
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Seminarioko ikasketak erdaraz ziren, baina euskararako tarte ere bazuten han. Txomin Agirreren 'Garoa' izan zen euskaraz irakurri zuen lehen liburuetako bat. Andoni Basterretxea izeneko Ondarroako apaiz baten kantu-liburu bat ere bazuten. Alfabetatzen hasi zenean, Umandiren gramatika landu zuen.

16. Seminarioko ikasgaiak eta logelak

- **Erref:** DON-053/024
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:34:33. **Bukatu:** 00:38:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminaria

Laburpena:

Seminarioko ikasgaiak zeintzuk ziren aipatzen du. Filosofiako ikasgaiak ziren, gero Erromara joan baitzen Teologia ikastera. Seminarioko logelak nolakoak ziren azaltzen du. Hasierako urtean gela berean egoten ziren apaizgai asko. Gerora, filosofia ikasterakoan, bakoitzak bere gela zuen. Ikasi eta jolastu ere egiten zuten. Komuna logela kanpoan zuten. Donostian sotana janzen zuten. Hondartzara lehen orduan joan behar izaten zuten.

17. Kontzilioaren ostean sotana gabe kalean

- **Erref:** DON-053/025
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:38:29. **Bukatu:** 00:40:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminaria

Laburpena:

Erromara joan zenean kontzilioa izan zen. Hainbat aldaketa batzuk ekarri zituen Elizara; esate baterako, apaizgaiak sonata gabe ibil zitezkeen kalean.

18. Abituak utzi eta irakasle hasi zen

- **Erref:** DON-053/027
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:40:41. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Donostiako seminarioan egon ostean, zazpi urte egin zituen Erroman. Apaiz ordenatu eta gero hura utzi eta irakasle lanetan hasi zen. Eskola partikularrak eman eta gero Barandiaran lizeoan izan zen zuzendari eta irakasle. Handik gerora irakasle-eskolatik deitu zioten euskara-irakasle gisa.

19. Magisteritza eskolan euskara-irakasle

- **Erref:** DON-053/030
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:43:43. **Bukatu:** 00:45:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Irakasle-eskolan oso giro ona egon zen, Franco hil ostean jendea gogotsu zegoen. 50 ikasleko taldeak izan zituzten, horietako asko orduan hasi ziren euskalduntzen.

20. Euskaltzaindiako gramatika batzordeko kide

- **Erref:** DON-053/031
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:45:19. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Ipuin-bildumatxo bat eta hainbat itzulpen lan egin izan ditu, batez ere momentuko beharrak bultzatuta. Ikasleek behar hori zutelako egin zituen, zeuden hutsuneak betetzen. Euskaltzaindiako gramatika batzordekoa zen elkarrizketa garaian. Euskaltzaindiarekin harremanetan nola hasi zen kontatzen du.

21. Seminarioak ikasteko aukerak ematen zituen

- **Erref:** DON-053/033
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:49:42. **Bukatu:** 00:52:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gerraostean ikasteko modu bat seminariora joatea zen. Askok uzten zuten erdibidean, baina dezentek bukatzen zuten. Kontzilio ondotik beste bide bat etorri zen. Donostiako seminarioak krisi bat ere jasan zuen eta sasoi batean itxi egin zuten. Gizarte aldaketa baten ondorioa da. Berak apaiztu ostean beste bide bat hartu zuen, batez ere irakaskuntza munduan murgilduta ikusten zuelako bere burua.

22. Donostiara gutxitan joaten ziren

- **Erref:** DON-053/035
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:53:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Ume eta gazte garaian, Donostiara gauza zehatzetarako joaten ziren: arropak-eta eroatera, oso noizean behin hondartzara, jai konkretu batzuetara... Erreterria aldera batez ere gazteak joaten ziren. Zinemara Trintxerpera joaten ziren.

23. Herrerako azoka eta "esneketaria"

- **Erref:** DON-053/036
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:53:42. **Bukatu:** 00:54:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Herrerako azokan inguruko baserritarrak batzen ziren: Altza eta Herrerako auzoetatik. Elkarriazketa garaian, Bordazarkoa baserriko jeneroa saltzen aritzen zen oraindik. Etxeberria baserriko "esneketaria" etxez etxe aritzen zen esnea partitzen.

24. Zakar asko ikatzarekin erretzen zen

- **Erref:** DON-053/037
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:54:57. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Etxeberria baserriko "esneketaria" etxez etxe aritzen zen esnea partitzen. Txerrientzako jana eramaten zuen batzuetan, baina kaletar askok ere bazituzten beraien txaboletan txerriak zakarrak jateko. Hala ere, orduko zakar asko erre egiten zela dio. Sua egiteko ikatza erabiltzen zuten. Bere osaba batek aroztegia zuen eta haren bitartez lortzen zuten sua.

25. Sagardotegira txikitatik

- **Erref:** DON-053/039
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:58:01. **Bukatu:** 00:59:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Herreran hainbat sagardotegi zeuden eta horiek desagertu dira dagoeneko. Gurasoekin joaten ziren denboraldi bukaeran meriendatzera, kupelak hustu behar izaten zirenean. Umeek ez zuten sagardo askorik edaten, baina bai pixka bat. Jatekoa kanpotik eramaten zen.

26. Altzako eta bailarakoekin harreman asko

- **Erref:** DON-053/040
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:59:12. **Bukatu:** 01:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Haurrak zirela, igandero-igandero, Altzara joaten ziren aita han baitzituen lagunak. Errepide izkinatik joaten ziren futbolean jolasten. Altzakoekin hartu-eman asko zuten, bertako ume asko ere Herrerako fraideetara joaten ziren ikastera, urrutiagokoak ere joaten ziren: Intxaurrendotik, Pasaiaik...

27. Herrerako San Luisak udako lehen festak

- **Erref:** DON-053/041
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:02:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

San Luis festak inguruko lehenak ziren. Buenavistan San Antonioak ospatzen ziren, baina ez ziren hain onak. Batez ere dantza izaten zen jaietan egiten zen nabarmenena, danborrada ere izaten zen. Inguruko herrietakoak ere joaten ziren bertara; izan ere, udako jaiak hasiera ematen zitzairen. Gerora San Juanak, Antxoko San Ferminak... izaten ziren. Herreran bertsolariak gutxitan izaten ziren; Altxan, aldiz uztailaren bian, Santa Teresa egunez, bai izaten ziren.

28. Gabon eskea

- **Erref:** DON-053/043
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:03:16. **Bukatu:** 01:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Bertako ohitura zen Gabonetako abesbatzak abesten ateratzea. Umeak beraiek kontura etxez etxe joaten ziren. Euskaraz abesten zuten. Dirua jasotzen zuten batez ere.

29. Erregenetan beharrezko gauzak opari

- **Erref:** DON-053/044
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:04:35. **Bukatu:** 01:05:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetan Erregenetan behar ziren gauzak jasotzen zituzten, arropak batez ere. Noizean behin jostailuren bat edo pilotaren bat ere izaten zuten. Kapritxo gutxi izaten zituzten, baina berak goserik ez du pasa.

30. Herrera nola aldatu den: etxe ingurua, eliza eta ikastetxea bota...

- **Erref:** DON-053/046
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 01:06:03. **Bukatu:** 01:10:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Beraien etxe ingurua nolakoa zen kontatzen du. dena jabe batena zen. Etxea dagoen tokian frontoi bat zegoen. Eliza eta ikastetxea saihesbidea egiterakoan bota zituzten. Franco hil aurreko urteak ziren eta auzoa apurtu zutela uste du Jose Antoniok. Bota zuten eliza hori Ategorrietako familia batek eraiki zuen beraien semeak auto-istripua izan eta gero.

31. "Bizikleta zuena zoriotsua zen"

- **Erref:** DON-053/049
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:13:00. **Bukatu:** 01:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

"Bizikleta zuena zoriotsua zen garai hartan" dio Jose Antoniok. Donostiatik Errenteriara tranbia izaten zuten eta beraiek bizikleta alokatu egiten zuten. Autorik ez zuten etxean.

32. "Radio Paris" eta eguerdiko partea

- **Erref:** DON-053/050
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 01:14:12. **Bukatu:** 01:14:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irratia beti ezagutu du etxean. Ordu batean Espainia osoan ematen zuten "partea" entzuten zuten. Gauean "Radio Paris" ere entzuten zuten.

33. San Pedron ikasi zuen igerian

- **Erref:** DON-053/052
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:14:55. **Bukatu:** 01:17:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Pasai San Pedron ikasi zuen igerian. Bere aitaren lankide batek esan zion irakatsi ziola eta harekin ikasi zuen. Ura gaur egun baino garbiagoa zen. Jende asko egoten zen eta ez zen oso arriskutsua.

34. Ama ez zen etxetik irtetzen, beti lanean

- **Erref:** DON-053/055
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:19:33. **Bukatu:** 01:21:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Ama beti egoten zen etxean lan eta lan, igandetan baino ez zen ateratzen mezara. Enkargutara arrebak joaten ziren. Aitak ere sekula ez zuen oporrik izan eta ez ziren inora joaten oporretan. Herreran garbitoki bat zegoen, baina beraiek etxean harraska handia zuten eta bertan garbitzen zuten.

35. Mutikotako jolasak

- **Erref:** DON-053/057
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:23:10. **Bukatu:** 01:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Futbolean, pilotan, gordeketara, "tren navios en el mar"ean... aritzen ziren,

beti zerbaitetan. Herrerako auzoen arteko txapelketa batzuk ere egiten zituzten noizean behin.

Mujika Casares, Jose Antonio | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com